

# HITZETATIK EKINTZETARA, EUSKARAREN LOREA EGUNERO UREZTATZEKO



Euskararen Nazioarteko Egunean aldarrikapenak beti daude gai zerrendan, baina urtarrietik abendura euskararen alde lan egiten dutenek ere beren lekua bilatu zuten atzokoan. Lore ederrena bezala osasuntsu mantentzeko, euskara egunero ureztatzeko deia egina dago.

**E**uskararen Nazioarteko Egunean biharamunak ospakizun eta ekimen ugari berri uzten du. Gure hizkuntza babestu, zaindu eta erabili behar dela eskatzen duten adierazpen instituzionalak –batez ere instituzionalak– biderkatu egiten dira. Ezinbestekoa da hala izatea, kontrakoa ez litzateke ulertuko, baina egun bakarrean horretaz guztiaz ohartaraztea baino, are garrantzitsuagoa da gaur, bihar, etzi, datorren astean, egunero euskara bultzatzea. Egunean izatea presente euskara altxorra dela, balio handiko ondarea, eta, horrenbestez, denon artean zaindu behar dugula. Loreak bezala. Gutzirako balio du lorea jada ihartuta dagoenean ura botatzea.

Ondo ureztatu ondoren proiektu batzuek eman dute fruitua, eta, pixkanaka bada ere, bidea egiten ari dira. Iazko Euskararen Nazioarteko Egunean aurkeztu zen euskara sarean praktikatzeko Mintzanet proiektua, adibidez, dagoeneko 200 lagunek erabiltzen dute modu aktiboan, atzo Donostiako San Telmo museoan adierazi zuten.

Helburua euskaraz jarduteko aukera ez duen pertsona orori etxetik atera gabe praktikatzeko modua ahalbidetzea da. Hori bermatzeko, edonon egonda ere, euskaraz nahi adina aldiz hitz egiteko aukera eskaintzen du [www.mintzanet.net](http://www.mintzanet.net) webguneak. Egitasmoa guztiz doakoa da, eta ezinbesteko bi oinarri ditu, besterik ez. Batetik, bidelaguna, alegia, euskaraz ikasten ari den eta hainbat arrazoi tarteko euskaraz egiteko aukera ez

duen orori mintzapraktika egiteko aukera ematen dion euskalduna, eta, bestetik, bidelaria, hau da, euskara ikasi edo hobetu nahi duen ikaslea. Atzokoan, Donostiako Udalak eta Maramara taldea hizkuntza zerbitzuen enpresak elkarlanean abian jarritako proiektuaren lehenengo urtebetetzea aprobetxatu zuten sortzaileek bidelagun eta bidelari onenak aitortzeko. Sarituak Izaskun Arrieta azkoitiarra eta Jose Ramon Onaindia getxotarra izan ziren, hurrenez hurren, bidelagun eta bidelari onenak.

Mintzaneten parte hartzen duten erabiltzaileei dagokienez, gehienak Euskal Herrian bertan daudela adierazi zuen Ritxi Lizartza Maramara taldeko zuzendariak. Hori bai, izena eman duten asko atzerrian bizi direla erantsi zuen: Ameriketako Estatu Batuetan, Argentinan, Txilen, Ingalaterran, Kolonbian, Brasilen, Uruguain, Kaledonia Berrian edota Polonian. Euskara praktikatzear gain, jendea ezagutzeko aukera ona dela azpimarratu zuen Lizartzak. Inor interesaturik balego, erabiltzaileak galdetegi bat bete behar du, egitasmoaren koordinatzaileak euskara ikaslearen gustuak, aukerak eta ohiturak ezagut ditzan eta egokituko zaion solaskidea ahalik eta ondoen aukeratu ahal izan dezan.

## NIRE ARGAZKIA 2.0

Iaz abiarazi zen proiektua da ere Jokin Etcheverria eta Benjamin Duinat lapurtarrena. «Nire argazkia» dokumentala pasa den urteko udazkenean aurkeztu ondoren, ekimenaren bigarren urratsarekin datoz orain, webserie moduan. Hain zuzen ere, NAIZek eskainiko du datorren astelehenetik aurrera «Nire argazkia 2.0» saila.

Arraioz eta Aramaioko familia bana jarri dituzte oraingoan argazki zaharren inguruan hizketan. «Euskalkiak ikertzeko asmoz familia batzuen intimitatean sartu gara», dio Etcheverriak. Izan ere, «euskalkien itzulia» egitea bi lapurtarrek dakarten proposamena. Benjamin Duinatek nabarmendu duenez, pozik izango da «jendeak egunero-kotasunean euskararekin duen harremanaz gogoetatzea» lortzen badute.

«Memoria, hizkuntza eta irudien arteko elkarrekintza» ditu oinarri proiektuak. Horretarako Aramaioko Etxaguen auzoko Ipurtotz baserriko Herrarte familiarekin eta Arraiozoko Etxandi familiarekin izan dira.

## ERREPORTAJEA



**Oihane LARRETxea**

Euskal Konfederazioak piknika antolatuta zuen atzo aurreneko Baionan, Euskal Erakunde Publikoaren egoitzaren aurrean.

Galzka IROZ

Saio ezberdinetan eta familia bakoitzaren garai bateko argazkiak aitzakiatzat hartuta, euren euskalkiak eta oroitzenak erakutsiko dizkigute lan berri honetan.

Guztira hamar ataleko saila da «Nire argazkia 2.0». Datorren astelehenean, hilaren 16an, estreinatuko du NAIZek eta egunero familiako kide batekin izandako elkarriketa ikusi ahal da. Ikustaldiaz gain, ordea, Etcheverria eta Duinatek «2.0» izaera hori indartu nahi izan dute; eta ahal dela, «euskalkien itzuli» horretara ale berriak batu nahi dituzte. Horregatik, saila eskaintzen ari den neurrian ekarpenak jasotzeko baliabideak jarriko dituzte.

## GUTUNAK ETA AUSARDIA

Epe luzeagoko proiektuak alde batera utzita, atzo ospakizun eguna ere izan zen, hala egin zuten adibidez Baionan. Aurreneko, Euskal Konfederazioak Euskal Erakunde Publikoaren aurrean piknika antolatuta zuen, musika

## DIMISIOEK FESTA ILUNDU DUTE EUSKALTZAINDIAN

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kideek dimisioa eman zuten atzo, Akademiaren zuzendaritzak ez duelako onartu batzordeak aurkeztu duen plangintza zehatz bat, Pello Salaburu lantaldeko arduradunak atzo adierazi zuenez. «Lanean segitu nahi izan dugu, baina ez gaituztela aintzat hartu ikusi dugu», gaineratu zuen. Antza denez, iragan ostiralean egindako osoko bilkuran talde honek proposatu zuen lan bat atzera bota zuten botazio bidez.

Euskararen Nazioarteko Egunean plazaratzeagatik oihartzun handia izan zuen dimisioak. Berria ezagutarazi eta ordu batzuk geroago Eferi egindako adierazpenetan, baina, Salaburuk ez zutela horrela nahita egin azaldu zuen: «Izandako oihartzuna jakin izan bagenu, atzeratu egingo genukeen iragarpena».

Andres Urrutia euskaltzainburuak garrantzia kendu nahi izan zion dimisioari eta egoera bideratuko dutela adierazi zuen. Atzo arratsaldean erabakia aztertzeke deitutako bileraren ondoren Euskaltzaindiak iragarri zuenez, hilaren 20an egingo den osoko bilkuran aztertuko dute gaia sakontasunean.

Gramatika Batzordearen dimisioak Euskaltzaindiak atzo parte hartu zuen hainbat ekimen ilundu zituen. Esaterako, goizean Gasteizko Legebiltzarrean egindakoa. Bertan, Bernard Etxepareren «Linguae Vasconum Primitiae» lana aurkeztu zuten txinera, arabiera, kitxua, errumaniera, katalan eta galegozko bertsoekin. GARA